Kontratua: Prozedura irekia oso sinplifikatua.

BERMEOKO UDALAK ETA BERUALAK EGUNKARIETAN ARGITARATU BEHARREKO IRAGARKIEN KUDEAKETA ETA IRAGARPENA BIDERATZEKO ZERBITZU KONTRATUA

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA:

Bermeoko Udalak eta Berualak egunkarietan argitaratu beharreko iragarkiak kudeatu eta iragarpena bideratzeko zerbitzua kontratatzea.

2.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK:

Egunkarietan argitaratu beharreko iragarkiak argitalpenera egin arte kudeatuko dira, beherago azaltzen diren gutxiengo prozedura eta epeak beteaz.

Ohiko iragarkiak egunkari hauetan argitaratuko dira: EL CORREO, DEIA, GARA eta BERRIA.

Argitalpenak udalak edo Berualak kasuan kasu zehaztuko egunkarietan egin beharko dira. Udalak edo Berualak zehaztuko ez balute, txandakako eran (errotatorioki) argitaratuko lirateke.

ALDIZKARI OFIZIALetan egiten diren iragarkiak espresuki kontratu honetatik kanpo geratzen dira.

3.-ZERBITZUA EMATEKO BALIABIDE EZAREN JUSTIFIKAZIOA:

Bermeoko Udalak ez dauka behar besteko baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau emateko; hain zuzen ere, egunkariekin zuzeneko harremana edukitzeko. Eta beharrezkoa da hainbat arinen iragarkiak argitaratzea adierazitako idatzizko komunikabide horietan.

CSV: 07EA0017AA7A00W0O4F7D4G6D7

4.- LAN METODOLOGIA

Esleipendunak, Udalak bidalitako iragarki guztiak argitaratzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, udal sailetatik iragarkien testua, argitalpen data(k) eta, beharrezkoa denean, argitaratu beharreko egunkarien zehaztapena bidaliko zaizkio. Udalak zehaztapenak zehaztu ezean, enpresa kontratistak egingo du proposamena, eta Udalak proposamen hori onartu beharko du.

Iragarkien hizkuntza finkatzea (euskera soilik edo elebietan) udalaren esku geratzen da, eta horrela entregatuko dira iragarkiak (euskeraz soilik edo elebietan).

Iragarkiak, esleipendunari bidaltzen zaizkion egunetik hasita, denbora laburrenean argitaratuak izan beharko dira, gehienez hiru (3) eguneko epean, ez bada premiatasunagaitik, epe laburragoan argitaratzeko eskatzen dala (beti be 24 orduko denborarekin gutxienez).

Premiatasunezko kasuak izango dira, hirigintza planeamenduarekin edota desjabetzeekin zer ikusia daukaten iragarkiena, asteburuan argitaratzeko eskatzen denean argitalpen eguna baino 72 orduko epea bete barik.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA EPEAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGOR GEHIGARRIAK

Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bidez zehaztuko da, benetan egindako prestazioen arabera.

Zerbitzuaren ordainsaria bi kontzeptuk osatuko dute:

a) Iragarkia argitaratzen den komunikabideak une bakoitzean aplikatzen duen tarifa ofiziala. Zenbateko hori kontratistak Udalari jasanaraziko dio, argitalpenaren benetako kostu gisa.

CSV: 07EA0017AA7A00W0O4F7D4G6D7

b) Iragarkia kudeatu, izapidetu eta argitaratzea bideratzeko zerbitzuagatik kontratistak eskainitako prezio unitarioa, iragarki bakoitzeko.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 193. artikuluaren babesean, Legeak berak ezartzen dituen zigorrez haratago, zenbait zigor ezartzea komenigarritzat jo da. Hori horrela, esleipendunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik plegu teknikoetan, eta hobekuntzak eskainiz gero, lizitatzaileen eskaintzan adierazitako epeak betetzen ez badira, hauek izango dira ez betetzearen ondorioak:

- Lehenengo ez betetzean, iragarkiaren prezioaren **%75** soilik ordainduko da.
- Bigarren eta ondorengo ez betetzeetan, iragarkiaren prezioaren **%50** soilik ordainduko da.

Aurrekoa gorabehera, ez betetzeak larriak edo errepikatuak izanez gero, kontratazio organoak kontratua suntsiarazteko aukera izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako kasu eta baldintzetan.

CSV: 07EA0017AA7A00W0O4F7D4G6D7